



# ZORTZI, KATILU BETE ZORRI



**ESKU DANTZA ZAPATAIN DANTZA**  
**XAN PETRIKE ZAZPI JAUZIAK**

**3+**



**5 OLGETAN**  
**ZORTZI, KATILU BETE ZORRI**

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsita: 2008-10-23 L. G. BI-1233-08 ISBN: 84-98646-20-8 ERREF.: 5202



Kaixo, lagunok! Ni Txinpart naiz, eta nire burdina eta guzti, zuekin dantzan egitera nator oraingoan! Baina ez naiz bakarrik etorri, nire lagunak ere hemen dira: Naia eta Maia bikiak, Xaxa, Eustaki, Tartalo, Txiki eta Eki. Dantza errazak eta politak ikasiko ditugu.

Lau dantza aukeratu ditugu zuei erakusteko: *Esku-dantza, Zapatain-dantza, Xan Petrike eta Zazpi Jauziak. Xan Petrikek beste bi izen ere baditu, Bizkar-dantza eta Yan Petite qui danse.*

*Esku-dantzan* eskuak eta oinak batera mugitu beharko dituzue, gero eta bizkorrago mugitu ere; *Zapatain-dantzan*, antzinako zapatariena egingo dugu; *Xan Petriken*, gorputz-atalekin behegaina ukitzen jolastuko gara, eta, azkenik, *Zazpi Jauziak* izeneko dantzan, jauzi eta jauzi ibiliko gara, jauzi edo salto batekin hasi eta harik eta zazpi jauzi egin arte.

*Zapatain-dantza, Esku-dantza eta Xan Petrike irri-dantzak* edo *joko-dantzak* dira. Jokoa eta dantza, biak uztartzen direlako esaten zaie horrela. *Zapatain-dantza* Lapurdiko dantza da, eta *Esku-dantza* eta *Xan Petrike*, berri, Nafarroakoak dira, Baztan ingurukoak. *Zazpi Jauziak* Iparralde osoan zabalduakoa da, Jauziak izeneko dantza-multzoko dantzetariko bat da.

Ausartuko al zarete, gurekin batera dantza egiten? Hasiko al gara? Aurrera, bada! Iraupena: 90'



**Ikastolen Elkartea**

© 2008, Bizkaiko Ikastolen Elkartea  
Ixer kalea 8, behea. 48340 Amorebieta-Etxano  
bie@ikastola.net  
www.ikastola.net

